





# ATRAPADOS EN UN BUCLE INFINITO (RIVER)

導 演 子  
 永野宗典 角田貴志 酒井善史 岡弘賢 石田剛大 中川晴樹 土佐和成  
 島崎裕貴 早織 久保史緒里 (主演) 本上まなみ 近藤芳正  
 片岡礼子  
 原案 脚本 上田誠 監督 編集 山口淳太  
 主題歌 くるり (Smile) [Victor Entertainment / SPEEDSTAR RECORDS]  
 音楽 滝本英司 撮影 川崎一成 照明 徳永裕弘 藤川康也 録音 深川睦湖 倉賀賢矢  
 美術 池尻浩樹 装飾 角田誠 衣裳 須川真子 ヘアメイク 松村妙子 効果音 渡部正博  
 撮影協力 料理旅館 真船ふじや 衣布情報本舗 豊船神社  
 宣伝美術 三福大介 (BREN Inc.) スタール 渡田英明 宣伝プロデューサー 岸井方直子 宣伝協力 ニッポン放送  
 プロデューサー 大槻真史 配給 トリウッド (友情配給) 東京ライブ事業部 製作 トリウッド 日一ロケット  
 © 2023 株式会社 トリウッド



# ANTZOKI ZAHARRA

## TEATRO PRINCIPAL

# 27

OSTIRALA / VIERNES

19:30

INAUGURAZIOA / INAUGURACIÓN

### VERMIN: LA PLAGA

(*Vermines*, 2023). Sébastien Vaniček  
Frantzia / Francia. 103 min

- frantsesa / francés
- ≡ gaztelania, ingelesa  
castellano, inglés



Kaleb animalia exotikoekin liluratuta dagoen gazte bat da. Gau batean, bazar batean armiarma bat erosi eta bere apartamentura eramaten du, eta bere arrebarekin partekatzen du. Armiarma, oso pozoitsua, berehala ihes egin eta ugaltzen hasten da. Hala, tranpa hilgarri bihurtuko da eraikina; are gehiago, poliziak eraikina itxi eta Kaleb eta bere lagunak araknido hiltzaileen horda batekin harrapatuta geratzen direnean. Irteera bat aurkitzea izango da bizirik irauteko aukera bakarra.

Kaleb es un joven fascinado por los animales exóticos que una noche compra en un bazar una araña y se la lleva a su apartamento, que comparte con su hermana. La araña, que resulta ser muy venenosa, no tarda en escapar y comienza a reproducirse, convirtiendo el edificio en una trampa mortal, más después de que la policía lo clausure y deje a Kaleb y sus amigos atrapados con una horda de arácnidos asesinos. La única opción para sobrevivir pasa por encontrar una salida.

23:30

JAPAN GAUA

### Border

(2023). Mai Nakanishi  
Japonia / Japón. 5 min

- japoniera / japonés
- ≡ gaztelania / castellano  
euskara

Emakume batek telebista pizten du drama korear bat ikusteko, baina laster konturatzen da bera dela ikusgai dagoena.

Una mujer enciende la televisión para ver un drama coreano, pero pronto se da cuenta de que puede ser ella la que está siendo vista.

### VISITORS - COMPLETE EDITION

(2023). Kenichi Ugana  
Japonia / Japón. 61 min

- japoniera / japonés
- ≡ gaztelania / castellano  
euskara

Souta ikustera doaz Haruka, Nana eta Takanori. Beren taldekide bat da, eta aspaldian ez dute haren berri. Hala, haren etxera iristen direnean, berehala konturatzen dira zerbait arraroa gertatzen dela han. Film dibertigarri eta zoroa. Uganaren aurreko film laburretik abiatzen dena: *Visitors* (2021), mundu osoko 35 zinemalditan baino gehiagotan proiektatu zena, eta orain erabat "osatu" duena.

Haruka, Nana y Takanori van a ver a Souta, un miembro de su grupo del que hace mucho tiempo que no saben nada. Cuando llegan a su casa se dan cuenta de inmediato de que algo extraño pasa allí. Divertida y enloquecida película que parte del corto previo de Ugana, *Visitors* (2021), que se proyectó en más de 35 festivales de todo el mundo y que ahora ha "completado".



## SANA / MINNA NO UTA

(2023). Takashi Shimizu  
Japonia / Japon. 102 min

» japoniera / japonés

» gaztelania / castellano  
euska



# 28

LARUNBATA / SÁBADO

**The Grudge** frankiziaren sortzaile mitikoa (2002) beldur klasikoenera itzuli da *J-Pop* Generations taldea protagonista duen istorio honekin. Taldea beldur zurrumbilo batean harrapatuta dago, haietako batek kasete zinta bat aurkitzen duenean lan egiten duen irratikateko biltegian. Duela urte asko Sana izeneko gazte misterioitsu batek bidalitako zinta bat da eta, entzuten duen orok kasetean garaitik datorren madarikazio baten ondorioak jasaten ditu.

El legendario creador de la franquicia **La maldición** (2002) vuelve al terror más clásico con esta historia protagonizada por el grupo de *J-Pop* Generations, que se ve atrapado en una espiral de terror cuando uno de ellos encuentra en el almacén de la emisora de radio donde trabaja una cinta de casete enviada muchos años atrás por una misteriosa joven llamada Sana. Todo aquel que escucha la cinta sufre las consecuencias de una maldición que se remonta al tiempo de los casetes.

16:30

## BLOOD DE BRAD ANDERSON

(*Blood*, 2022). Brad Anderson  
AEB / EEUU. 108 min

» ingelesa / inglés

» gaztelania / castellano  
euska



Jess Stokes, banandutako ama eta erizaina, familiaren landetxera joan da bizitzera, Tyler alaba nerabearekin eta Owen zortzi urteko semearekin batera. Egun batean, txakurrak kosk egin ondoren, Owen gaixotu egingo da. Medikuek ez dakite zer gertatzen zaion eta bere osasunak okerrera egiten du... Jessek sendabide harrigarri bat aurkitzen duen arte. Michelle Monaghan da Brad Andersonek beldur klasikoenera egindako itzuleraren protagonista.

Jess Stokes, madre separada y enfermera, se muda a la granja familiar junto a su hija adolescente Tyler y su hijo de ocho años Owen. Un día, tras ser mordido por su perro, Owen cae enfermo. Los médicos no saben qué le sucede y su estado de salud empeora por momentos... hasta que Jess descubre una sorprendente cura. Michelle Monaghan protagoniza la vuelta al terror más clásico de Brad Anderson.


19:30

## CUANDO LOS AMOS DUERMEN

(2023). Santiago Alvarado Illari  
Espainia / España. 98 min

» gaztelania / castellano

» ingelesa / inglés



Samuel eta Lourdes senar-emazte xume batzuk dira, eta dena ematen dute beren ugazaba Víctorren etxea eta lurrak zaintzen. Hura antzinako banpiro bat da, jende gaiztoaren odolaz bakarrik elikatzen dena. Belaunaldi belaunaldi, Samuelen familia arduratu da ugazaba babesteaz, baina orain Samuel eta Lourdesek bi arazo dituzte: ez dute lortzen ondorengorik izatea, eta banpiro misterioitsu bat iristen da bertara bisitan.

Samuel y Lourdes son un humilde matrimonio que se desvive cuidando los terrenos y la casa de su señor, Víctor, un vampiro ancestral que solo se alimenta de la sangre de gente malvada. Generación tras generación la familia de Samuel se ha encargado de salvaguardar a su amo, pero ahora a Samuel y Lourdes les angustian dos problemas: no consiguen tener descendencia y un vampiro misterioso llega de visita al lugar.

## Vulvine Reine de l'Extase

(2022). Mary Yanko, Théo Guyot, Ming Chieh Chang, Nawel Bahamou, Clémence Andre  
Frantzia / Francia. 8 min

Eresuma mortu batean makaltzen hasia den erregina bat Heriotzaz maitemintzen da, eta haragizko maitasun harreman bat hasten du harekin. Hala, uztartze morbosoa hori obsesio bihurtzen da berarentzat; akabatu egingo duen obsesio bat...

Una reina que languidece en un reino desértico se enamora de la Muerte, con quien inicia una relación carnal. Esta unión morbosa se convierte en una obsesión para ella; una obsesión que llevará a la reina a su fin...

## ROKYA / HOOD WITCH

(2023). Saïd Belktibia  
Frantzia / Francia. 91 min

» frantsesa / francés  
» gaztelania / castellano



Nour Frantziara legez kanpo eramaten dituen animalia exotikoekin trafikatzetik bizi da. Bere semearentzat hiritik kanpo bizitza hobeago bat lortzeko itxaropenarekin, kontsulta espiritualetarako aplikazio bat ere sortzen du, non xamanekin jartzen dituen harremanetan bezeroak. Baina saialdi batean auzoko bat hil ondoren, Nourrek eta bere semeak ihes egin behar izango dute, mendeku bila atzetik joango zaien jendetza amorratu bat saihestearren.

Nour vive de traficar con animales exóticos que lleva a Francia de forma ilegal. Con la esperanza de conseguir una vida mejor para su hijo fuera de la ciudad, crea también una aplicación para consultas espirituales en la que pone en contacto a posibles clientes con chamanes. Pero tras la muerte de un vecino en una sesión, Nour y su hijo deben escapar perseguidos por una furiosa multitud en busca de venganza.

## BRUJERÍA

(2023). Christopher Murray  
Txile-Mexiko-Alemania / Chile-México-Alemania. 101 min

» gaztelania, maputxea, alemana, castellano, mapuche, alemán  
» gaztelania, ingelesa, castellano, inglés



Chiloé uharte urrunean, XIX. mendearen amaieran, Rosa izeneko neska huillitxe bat bere aitarekin bizi eta lan egiten du kolono aleman batzuen etxaldean. Bere nagusiak aita bortizki hiltzen duenean, eta agintariak lagunduko ez diotela ikusita, Rosa, bere sinesmen kristauak alde batera utzita, justizia bila hasi eta aztien botere handiko erakunde bateko erregearengana joango da.

En la remota isla de Chiloé, a finales del siglo XIX, una niña huilliche llamada Rosa vive y trabaja con su padre en la granja de unos colonos alemanes. Cuando su patrón asesina brutalmente a su padre y ve que las autoridades no la van a ayudar, Rosa abandona sus creencias cristianas y busca justicia acudiendo al rey de una poderosa organización de hechiceros.

## 29

IGANDEA / DOMINGO

16:30

## JUEGO PROHIBIDO

(The Forbidden Play / Kinjirareta asobi, 2023). Hideo Nakata  
Japonia / Japón. 110 min

» japoniera / japonés  
» gaztelania / castellano, euskara



Naoto eta Miyuki senar-emazteen zoriona bat-batean bukatu da, emaztea auto istripu batean hiltzen denean. Naoto lur jota geratzen da bere seme Narutorekin batera; honek amaren hatz bat lurperatzen du lorategian, eta egunero errezitatzen du sorginkeria bat ama bizitzara itzuli dadin. Zenbaitetan hobe da gauza jakin batzuk ez eskatzea.


La felicidad del matrimonio compuesto por Naoto y Miyuki termina bruscamente cuando ella muere en un accidente de coche. Naoto queda devastado junto a su hijo Naruto, que entierra un dedo de su madre en el jardín y cada día recita un hechizo para que vuelva a la vida. A veces es mejor no pedir ciertas cosas.

19:30

## LA ESPERA

(2023). F. Javier Gutiérrez  
Españaia / España. 98 min

» gaztelania / castellano



Eladio landetxe bateko zaindaria da, eta bertan bizi da emaztearekin eta semearekin. Egun batean, ehiztari baten eroskeria onartzen du eta, horren ondorioz, aste batzuk geroago, infernu gorri bihurtuko da bere bizitza. F. Javier Gutiérrezen hirugarren film luzea, **3 días** (2008) eta **Rings** (2017) filmen ondoren, Víctor Clavijo, Ruth Díaz eta Luis Callejo protagonista dituen.

Eladio es el guarda de una finca en el campo, donde vive con su mujer y su hijo. Un día acepta el soborno de un cazador, lo que provoca que semanas después su vida se convierta en un descenso a los infiernos. Tercer largometraje de F. Javier Gutiérrez tras **3 días** (2008) y **Rings** (2017), protagonizado por Víctor Clavijo, Ruth Díaz y Luis Callejo.

22:00

## The Encounter

(2022). Gregory Gotham Smith  
AEB / EEUU. 2 min

» ingelesa / inglés

» gaztelania / castellano  
euskara

Gaueko ordu txikietan trenbide batetik dabilen gizon batek beste gizon batekin topo egiten du.

Un hombre que camina por las vías del tren a altas horas de la noche se encuentra con otro hombre.

## HOW TO KILL MONSTERS

(2023). Stewart Sparke  
Erresuma Batua / Reino Unido. 96 min

» ingelesa / inglés

» gaztelania / castellano  
euskara



Jamie Lancaster da basoko txabola urrun batean izandako sarraski odoltsu batetik bizirik irten den bakarra. Polizia iristen denean, bere lagun guztiak munstro beldurgarri batek irentsi dituela esaten die, baina ez dute sinesten eta atxilotu egiten dute. Hala ere, laster konturatzen dira egia esan duela, giza haragiz gosetutako munstroen horda batek eraso baitu komisaria. Polizia hasiberri talde batekin eta preso batzuekin batera aurre egin beharko die haiei, beren bizitzako gau txarrenetik bizirik irten nahi badute.

Jamie Lancaster es la única superviviente de una sangrienta masacre en una remota cabaña en el bosque. Cuando llega la policía, les dice que todos sus amigos han sido devorados por un terrorífico monstruo, pero no la creen y la detienen. Sin embargo, muy pronto se dan cuenta de que dice la verdad, porque la comisaría es asaltada por una horda de monstruos hambrientos de carne humana. Junto con un grupo de policías novatos y algunos presos deberán enfrentarse a ellos si quieren sobrevivir a la peor noche de sus vidas.

30

ASTELEHENA / LUNES

16:30

## SLEEP

(2023). Jason Yu. Hego Korea / Corea del Sur. 95 min

» koreera / coreano

» gaztelania / castellano



Hyun-su eta Soo-jin ezkondu berri dira. Gau batean, Hyun-su ametsetan hitz egiten hasten da: "*Norbait dago baruan*". Ordutik, lo dagoen bakoitzean, beste pertsona bat bihurtzen da, eta esnatzen denean ez du gogoratzen aurreko gauean zer egin duen. Soo-jin bere senarraren portaeraren beldur da eta ezin du lorik egin. Tratamendu bat hasi badu ere, Hyun-suren sonambulismoa areagotu egiten da, eta emaztea esperoan duen haurra arriskuan egon daitekeela nabaritzen hasten da.

Hyun-su y Soo-jin se acaban de casar. Una noche Hyun-su comienza a hablar en sueños: "*Alguien está dentro*". Desde entonces, cada vez que duerme se transforma en otra persona, y cuando despierta no recuerda lo que ha hecho la noche anterior. Soo-jin tiene miedo del comportamiento de su marido y no puede dormir. A pesar del tratamiento que inicia, el sonambulismo de Hyun-su se intensifica y ella empieza a sentir que el bebé que espera puede estar en peligro.

19:30

## Nada de nada

(2023). Gastón Haag  
16 min

» *gaztelania / castellano*

Supermerkatu bat non, itxuraz, gauza handirik ez den gertatzen, non bertako langileek zer esan handirik ez duten. Baina ziztu bizian alda liteke dena, lankide berri bat sartzen denean... edo ez da ezertxo ere gertatuko berriro ere?

Un supermercado donde al parecer pasa poca cosa, con unos trabajadores que no tienen mucho que decir; pero todo podría cambiar estrepitosamente con un nuevo compañero... ¿o no pasará nada de nada otra vez?

## THE SACRIFICE GAME

(2023). Jenn Wexler  
AEB-Canada / EEUU-Canadá  
100 min

» *ingeleza / inglés*

» *gaztelania / castellano*



1971ko Gabonak baino hiru egun lehenago, Samantha eta Clara, eliteko eskola bateko bi ikasle, ez dira etxera itzuliko beren familiek: oporrak ikastetxean igaro beharko dituzte, irakasle batekin batera. Gau horretan, deabru bati dei egin nahi dioten hiltzaileen sekta bat agertzen da han. Neska gazteek arma guztiakin borrokatu beharko dute bizirik irauteko.

Tres días antes de la Navidad de 1971, Samantha y Clara, dos estudiantes de una escuela de élite, no van a volver a sus casas con sus familias: deben pasar las vacaciones en el centro junto a una profesora. Una secta de asesinos que tratan de invocar a un demonio se presentan allí esa noche. Las jóvenes tendrán que luchar con todas las armas a su disposición para tratar de sobrevivir.

22:30

## Bug

(2022). Coral Amiga,  
Nicole Hartley  
Erresuma Batua / Reino Unido  
8 min

» *ingeleza / inglés*

» *euskara / euskera*

Ama bat bere onetik atera da bere alaba txikiarekin errepidearen ondoan, eta emaitza izugarriak izan ditu horrek.

Una madre pierde los estribos con su pequeña hija al lado de la carretera con resultados monstruosos.

## DEVILS

(2023). Kim Jae-hoon  
Hego Korea / Corea del Sur  
106 min

» *koreera / coreano*

» *euskara, ingeleza  
euskera, inglés*



Duela hiru urte Jae-hwan detektibeak bere lankide eta koinatua galdu zuen serieko hiltzaile baten kasua ikertzen ari zirela. Hala, haren arrastoei jarraitzen aritu da harrezkero. Bilaketa hori geldirik zegoela zirudienean, dei bat jasotzen du hiltzailea non dagoen jakinarazteko. Azkenean, aurkitu egin du, eta mendialdean jazarri eta borrokatu ondoren, ibai batera erortzen dira biak. Haien bila dabil polizia, baina ez ditu aurkitzen. Hilabete geroago komisariako atean agertzen dira.

Hace tres años el detective Jae-hwan perdió a su compañero y cuñado investigando el caso de un asesino en serie. Desde entonces ha seguido tras sus huellas. Cuando esta búsqueda parecía estancada, recibe una llamada que le informa del paradero del asesino. Finalmente lo encuentra y tras una persecución y una pelea en una montaña ambos caen a un río. La policía les busca pero no les encuentra. Un mes después aparecen en la puerta de la comisaría.

16:30

## FOUNDERS DAY

(2023). Erik Bloomquist  
AEB / EE.UU. 106 min

» ingelesa / inglés

≡ euskara



Alkatetzarako hauteskunde-kanpainen, Ingalaterra Berriko herri txiki eta historiko batean, serieko hiltzaile maskaradun bat bertako kaleak odolez blaitzen hasi da. Krimenak bata bestearen atzetik gertatzen dira, bi hautagaien senideak barne; liskar mediatikoarekin jarraitzen dute haiak. Bloomquist anaiek, **She Came from the Woods** (2022) filmaren egileek, *slasher* klasiko eta odoltsu hau aurkezten dute.


Durante la campaña electoral a la alcaldía en una pequeña e histórica localidad de Nueva Inglaterra, un asesino en serie enmascarado comienza a teñir de sangre sus calles. Los crímenes se suceden, incluyendo a familiares de los dos candidatos, que prosiguen con su enfrentamiento mediático. Los hermanos Bloomquist, responsables de **She Came from the Woods** (2022), presentan este clásico y sangriento *slasher*.

19:30

## LA MESITA DEL COMEDOR

(2022). Caye Casas  
Espainia / España. 90 min

» gaztelania / castellano



Berrogei urte inguru dituen bikote batek, Mariak eta Jesúsek, lehenengo haurra izan berri dute. Ez dira momenturik onena bizitzen ari beren harremanean eta, okerrago, ez zaie burututik pasatu ere egingo jangelarako mahaitxo bat erostea izango dela beren bizitzako erabakirik txarrena. Caye Casas da umore beltz-beltzez blaitutako film larri honen zuzendaria. Egunerokotasunetik abiatuta, filmak ihesbiderik gabeko amesgaizto batean murgiltzen ditu protagonistak.

María y Jesús son una pareja de cuarentañeros que acaban de tener su primer hijo. No pasan por el mejor momento de su relación, pero lo que no imaginan es que la compra de una mesita para el comedor se convertirá en la peor decisión de sus vidas. Caye Casas dirige esta angustiada película barnizada de humor negrísimo que parte de lo cotidiano para sumergir a sus protagonistas en una pesadilla de la que resulta imposible escapar.

23:30

HALLOWEEN GAUA

Mozorro lehiaketa

Concurso de disfraces

## MALUM

(2023). Anthony DiBlasi  
AEB / EE.UU. 93 min

» ingelesa / inglés

≡ gaztelania / castellano



Poliziako ofizial gazte bat bere borondatez aurkeztu da komisaria bateko gaueko azken txanda egiteko. Komisaria hurrengo egunean bota behar dute. Eta hori egin badu, bere aitaren suizidio ulertezina ikertzeko izango da: urte batzuk lehenago leku horretan bertan egin zuen bere buruaz beste, lankide batzuk hil ondoren. Garai hartan, Gaizkiaren gurtzaileen sekta batekin lotutako kasu batean lanean ari zen aita.

Una joven oficial de policía se presenta voluntaria para cubrir el último turno de noche de una comisaría que al día siguiente va a ser desmantelada. Lo hace para investigar el inexplicable suicidio de su padre años atrás en ese mismo lugar tras asesinar a varios compañeros, mientras trabajaba en un caso relacionado con una secta de adoradores del Mal.



## LA ENDEMONIADA

(1975). Amando de Ossorio  
Espainia / España. 90 min

► *gaztelania / castellano*



Poliziak adineko emakume ijito bat atxilotu du jaioberri baten bahiketarekin eta eliza bateko objektu batzuk desagertzearekin zerikusia duelakoan. Galdeketan, emakumeak bere buruaz beste egiten du leihotik behera botata; aurretik, ordea, deabruari gomendatu dio bere burua. Mendeku gisa, bere espirituak eskualdeko komisionatuaren alabaren gorputza hartuko du. Pelikula hau **The Exorcistaren** (1973) arrastoari jarraituz filmatua da (datu anekdotiko gisa, Marian Salgadok Linda Blairri ahotsa jarri zion bikoizketan). Beldurraren klasiko Amando de Ossoriok zuzendua, Friedkinen filma baino hilabete batzuk lehenago estreinatu zen Espainian.

Una anciana gitana es detenida por la policía por su supuesta relación con el secuestro de un recién nacido y la desaparición de una serie de objetos de una iglesia. Durante el interrogatorio, la mujer se suicida arrojándose por la ventana, no sin antes haberse encomendado al diablo. Como venganza, su espíritu toma el cuerpo de la hija del comisionado de la zona. Película rodada siguiendo la estela de **El exorcista** (1973) (como dato anecdótico, Marian Salgado puso voz a Linda Blair en el doblaje de la misma) dirigida por el clásico del terror Amando de Ossorio que se estrenó en España meses antes que la película de Friedkin.

## 1

ASTEAZKENA / MIÉRCOLES

16:30

## MARS EXPRESS

(2023). Jérémie Périn  
Frantzia / Francia. 85 min

► *frantsesa / francés*

≡ *gaztelania / castellano*  
*euskara*



2200. urtean, Aline Rubyk, detektibe pribatu burugorrrak, eta Carlos Riverak, bost urte lehenago zendu zen lagunaren erreplika androideak, erlojupeko lasterketa bat hasi dute Martera. Jun Chow aurkitzea da haien misioa, ihesari emandako zibernetikako ikaslea, orpo orpo dituen hiltzaileek hura harrapatu baino lehen. Hala ere, bidean aurkitutakoak gainditu egiten ditu haien itzaropen guztiak.

En el año 2200, Aline Ruby, una testaruda detective privada, y Carlos Rivera, réplica androide de su compañero fallecido cinco años atrás, inician una carrera contrarreloj hacia Marte. Su misión es encontrar a Jun Chow, una estudiante de cibernética a la fuga, antes de que los asesinos que le pisan los talones puedan atraparla. Sin embargo, lo que descubren por el camino supera todas sus expectativas.

19:30

## LA ERMITA

(2023). Carlota Pereda  
Espainia / España. 107 min

► *gaztelania / castellano*



Bere herriko ermitan mendeetan harrapatuta dagoen neskato baten espirituarekin komunikatzen ikasi nahi du Emmak. Saiatu egingo da Carol konbentzitzen –sinesgaitza eta medium faltsua bera– mamuekin hitz egiten irakats diezaion. Haren laguntza izango da bide bakarra gaixo duen amarekin elkartuta jarraitzeko, hiltzen denean. Carolek babesten ez badu, Emmaren bizitza arriskuan egongo da. Belén Rueda da Carlota Peredak (**Cerdita**, 2022) zuzendutako bigarren film luze honen protagonista.

Emma quiere aprender a comunicarse con el espíritu de una niña que lleva siglos atrapada en la ermita de su pueblo. Intenta convencer a Carol, una incrédula y falsa médium, para que le enseñe a hablar con fantasmas. Su ayuda será el único camino para seguir unida a su madre enferma cuando ella muera. Si Carol no la protege, la vida de Emma correrá peligro. Belén Rueda protagoniza el segundo largometraje dirigido por Carlota Pereda (**Cerdita**, 2022).

## SATANIC HISPANICS

(2022). Mike Mendez, Demian Rugna, Eduardo Sánchez, Gigi Saul Guerrero, Alejandro Brugués. AEB / EEUU. 113 min

» *ingeleza, gaztelania*  
*inglés, castellano*

≡ *gaztelania / castellano*



El Pasoko komisiaia batean sartzen denean, jatorri latinoko gorpu pila bat eta bizirik dirauen pertsona bakarra aurkitzen dituzte. Behin komisiarian daudela, Latinoamerikako banpiroak, izaki mitologikoak eta deabruak protagonista dituzten beldurrezko istorioak kontatzen dizkiete. Alejandro Brugués (Juan de los muertos, 2011), Mike Mendezek (The Convent, 2000), Gigi Saul Guerrero (Bingo Hell, 2021), Eduardo Sánchezek (The Blair Witch Project, 1999) eta Demian Rugnak (Cuando acecha la maldad, 2023) zuzendutako istorioen bilduma.

Cuando la policía de El Paso entra en una casa encuentran un montón de cadáveres de origen latino y un único superviviente, que una vez en la comisaría les cuenta diversas historias de terror protagonizadas por vampiros, seres mitológicos y demonios de América Latina. Recopilación de historias dirigidas por Alejandro Brugués (Juan de los muertos, 2011), Mike Mendez (The Convent, 2000), Gigi Saul Guerrero (Bingo Hell, 2021), Eduardo Sánchez (El proyecto de la bruja de Blair, 1999) y Demian Rugna (Cuando acecha la maldad, 2023).

## 2

OSTEGUNA / JUEVES

» *gaztelania / castellano*

16:30

FILM LABUR ESPANIARREN MARATOIA  
MARATÓN DE CORTOS ESPAÑOLES (102 min)

### Ahora vuelvo

(2023)  
Lucas Paulino, Gabe Ibáñez  
13 min

María, 7 urteko neskatila, bakarrik geratzen da etxean, ama afaritarako erosketak egitera atera den bitartean. Bakarraldia, ordea, gauera arte luzatzen da. Norbaitek atea jotzen duenean, María zalantzan da bere ama ote den.

María, una niña de 7 años, se queda sola en casa mientras su madre sale a comprar para la cena. El tiempo a solas se extiende hasta la noche. Cuando alguien llama a la puerta, María duda si es su madre o no.

### Alicia

(2023). Tony Morales. 5 min

Carolinalak bere alaba Alicia txikiaren beldurrei aurre egin beharko die. Alaba itsu geratu berri da eta bere gelan adineko emakume bat bizi delako susmoa du.

Carolina tendrá que lidiar con los miedos infantiles de su hija Alicia, que acaba de quedarse ciega y cree que en su habitación vive una anciana.

### Els amants

(2023). Joan Vives Lozano. 23 min

Urteak dira Ovidi itsasoan desagertu zela arrastorik utzi gabe. Teresa alargunak loreak eraman ohi dizkio oraindik azkenekoz elkar ikusi zuten lekura. Hamar urte geroago, maitaleak berriro elkartuko dira, baina agian ez espero zuten moduan.

Hace años que Ovidi desapareció en el mar sin dejar rastro. Teresa, su viuda, todavía sigue llevándole flores al sitio donde fue visto por última vez. Diez años después, los amantes se reencontrarán, aunque quizá no en la forma en la que lo hubiesen esperado.

### La calima

(2023). Isaac Berrocal Bravo. 14 min

Familia bat opor egun batzuk igarotzera doa naturaren erdira. Dena ondo doa tenperatura ziztu bizian igotzen hasten den arte.

Una familia se dispone a pasar unos días de vacaciones en plena naturaleza. Todo va bien hasta que la temperatura comienza a subir estrepitosamente.

### Los cómplices

(2023). Alberto Evangelio. 14 min

Aitari hiltzen lagundu behar dion emakume etsi batek "konplize" misterioitsu batzuegana jotzen du, haien kolaborazioak benetan zer ekarriko duen jakin gabe.

Una mujer desesperada que necesita ayudar a su padre a morir recurre a unos misteriosos "cómplices" sin saber lo que en realidad significa su colaboración.

## Nubes

(2023). Edu Escudero. 19 min

Bere aita hil ondoren, Noe haren etxera doa ehorzterakoan jantzioko dioten trajea jasotzera. Hara iristean zerbait deskubrituko du, alaba batek imagina dezakeen dilemarik handiena: aitak ezkutatuan zuen sekretua gorde edo ezagutzera ematea.

Después de que su padre muera, Noe acude a su casa para recoger el traje con el que será enterrado. Al llegar, descubre algo que la enfrentará al mayor dilema que una hija puede imaginar: proteger o revelar el secreto que escondía su padre.

## Suspensio

(2023). Fernando Cámara. 14 min

Norak beka galduko du eta Carmenekin hitz egin beharko du Errekuperazio Gelan. Irakaslea oso gaixorik omen dago. Operatu berri. Mutatzen beharbada.

Nora va a perder la beca y tiene que hablar con Carmen en el Aula de Recuperación. Dicen que la profesora está muy enferma. Recién operada. Puede que mutando.

19:30

## VINCENT DOIT MOURIR

(2022). Stéphan Castang  
Frantzia / Francia. 108 min

» frantsesa / francés

≡ gaztelania / castellano



Ezegagun batzuk Vincenti erasotzen hasten dira ustekabeen. Hura hiltzen saiatzen dira. Hala, bere bizitza aspergarri eta interesik gabeak ustekabeko norabide bat hartzen du; ihesari eman behar izango dio bizirik irauteko, biolentziatzko espiral erraldoi bat dena suntsitzen hasi denean gainera. Bere bizitza aldatu da, pertsona guztien bizitza aldatu da. Mundua ez da inoiz izango lehen izan zena.

Diversos desconocidos comienzan a atacar inesperadamente a Vincent. Tratan de matarle. Su aburrida y anodina existencia da un giro inesperado y se ve obligado a escapar para sobrevivir, al tiempo que observa cómo una gigantesca espiral de violencia lo arrasa todo. Su vida ha cambiado, la vida de todas las personas ha cambiado. El mundo ya no será nunca lo que fue.

22:30

## Ride Baby Ride

(2023). Sofie Somoroff  
AEB / EEUU. 7 min

» ingelesa / inglés

≡ gaztelania / castellano

1978ko Camaro hau bere ametsetako autoa zen. Orain bere amesgaiztoa da.

Este Camaro de 1978 era el coche de sus sueños. Ahora es su pesadilla.

## CUANDO ACECHA LA MALDAD

(2023). Demian Rugna  
Argentina. 100 min

» gaztelania / castellano

≡ ingelesa / inglés



Herri txiki, urrun eta bakartu bateko biztanleek jakin dutenez, deabru bat jaiotzeko zorian dago "zomorrotutako" baten gorputzean, eta inguruko bizimodu baketsua mehatxatzen du horrek. Ahalik eta azkarren suntsitzea erabakitzen dute, baina huts gehiegi egiten dituzte. Orain, bertatik ihes egin beharko dute, birus baten antzera Gaizkia bazter guztietatik zabaltzen ari den bitartean.

Los habitantes de un pequeño pueblo en medio de la nada descubren que un demonio está a punto de nacer en el cuerpo de un "embichado" amenazando la apacible vida de la zona. Deciden deshacerse de él lo más rápidamente posible, pero cometen demasiados errores. Ahora deberán escapar del lugar mientras el Mal se extiende como un virus por todas partes.

# 3

OSTIRALA / VIERNES

16:30

## DIVINITY

(2022). Eddie Alcazar  
AEB / EEUU. 88 min

» ingelesa / inglés

≡ gaztelania / castellano  
euskara



Erat bat suntsituta geratzeko zorian den planeta hondatu batean, Jaxxon Piercek hilezkortasuna lortu du. Aitaren pausoei jarraituz, enpresari farmazeutikoa ahalegin batean aritu da Divinity ekoizten eta banatzen; kontsumitzailei betiereko gaztetasuna ematen dien substantzia. Gau batean, bi anaia kosmiko bere gotorlekuan sartzen dira bahitzeko asmoz. Urteko film saikaezinenetako bat, kontzientziatz haraindiko bidaia haluzinagarri bat.

En un devastado planeta que camina hacia su completa destrucción, Jaxxon Pierce ha conseguido la inmortalidad. Siguiendo los pasos de su padre, el empresario farmacéutico ha dedicado todos sus esfuerzos a la producción y distribución de Divinity, una sustancia que proporciona la eterna juventud a sus consumidores. Una noche dos hermanos cósmicos entran en su fortaleza con la intención de secuestrarlo. Una de las películas más inclasificables del año, un alucinante viaje más allá de la consciencia.

20:00

BUKAERA / CLAUSURA

## ATRAPADOS EN UN BUCLE INFINITO

(River, 2023). Junta Yamaguchi  
Japonia / Japón. 86 min

» japoniera / japonés

≡ gaztelania / castellano  
euskara

Japoniako ostatu tradizional bat negu lasai batean. Mikotok, bertako zerbitzarietako batek, lanari ekin dio berriro da Kibune ibaiaren ertzean tarte bat eman ondoren. Bi minutu geroago, ordea, ibaian agertzen da berriro, nola ez dakiela. Eta ez zaito berari bakarrik gertatzen. Mundu guztia sumatzen hasi da zerbait arraroa gertatzen ari dela. **Beyond the Infinite Two Minutes** (2021) eta gero. Junta Yamaguchik berriro egiten du jolas denborarekin sekuela espiritual honetan.

Una posada tradicional japonesa un tranquilo invierno. Mikoto, una de las camareras, vuelve al trabajo tras haber pasado un rato en la orilla del cercano río Kibune. Sin embargo, dos minutos después se encuentra de nuevo en el río. Y no solo le pasa a ella. Todo el mundo empieza a notar que algo extraño sucede. Tras **Más allá de los dos minutos infinitos** (2021), Junta Yamaguchi vuelve a jugar con el tiempo en esta secuela espiritual.



# TEATRO

## VICTORIA EUGENIA

### ANTZOKIA

# 28

LARUNBATA / SÁBADO

19:00

## EL CASTILLO A TRAVÉS DEL ESPEJO

(*Kagami no kojo*, 2022)  
Keiichi Hara. Japonia / Japón  
116 min

» japoniera / japonés

≡ gaztelania / castellano  
euskara



Kokoro institutuan baztertuta sentitzen den bigarren hezkuntzako ikasle bat da, eta bere logelan ematen ditu egunak. Egun batean, gelako ispilua argitzen da eta bere barrura xurgatzen du Kokoro. Han, maitagarrien ipuinetarako gaztelu bat eta elkar ezagutzen ez duten bigarren hezkuntzako beste sei ikasle aurkitzen ditu. Eta, are gehiago, neska bat agertzen da otso maskara batekin, eta esaten die, gazteluan ezkutuan gordeta dagoen giltza aurkitzen badute, beren edozein desio egia bihurtuko duela... urtebeteko epean aurkitzea lortuz gero.

Kokoro es una estudiante de secundaria que se siente marginada en el instituto y pasa los días encerrada en su habitación. Un día, el espejo de la habitación se ilumina y es absorbida a su interior. Allí encuentra un castillo de cuento de hadas y a otros seis estudiantes de secundaria que no se conocen de nada. Y lo que es más, aparece una chica con una máscara de lobo que les dice que si encuentran la llave oculta en el castillo les concederá cualquier deseo... siempre que lo consigan en el plazo de un año.

# 29

IGANDEA / DOMINGO

≡ euskara / euskera

19:00

NAZIOARTEKO FILM LABURREN MARATOIA  
MARATÓN DE CORTOS INTERNACIONALES (144 min)

## Border

(2023). Mai Nakanishi  
Japonia / Japón. 5 min

ikusi 3. orrialdea

véase página 3

## Bug

(2022). Coral Amiga,  
Nicole Hartley.  
Erresuma Batua / Reino Unido. 8 min

ikusi 7. orrialdea

véase página 7

## Cold Light

(2023). Roger Rodríguez  
Kanada / Canadá. 17 min

Gau batean neska gazte bat aulki bati lotuta dago, nekazari zahar baten eskutik bizirik lurperatua izateko zorian. Leku urrun batean dagoenez, gauzak horrela, joaten utz diezaion konbentzitzen saiatzea izango da bere ihesbide bakarra.

En medio de la noche, una joven está atada a una silla y a punto de ser enterrada viva por un viejo granjero. Al estar en medio de la nada, su única escapatoria parece ser intentar convencer a su captor de que la deje ir.

---

## The Encounter

(2022). Gregory Gotham Smith  
AEB / EEUU. 2 min

ikusi 6. orrialdea

véase página 6

---

## Gertrude et Yvan Party Hard

(2022). Louise Groult  
Frantzia / Francia. 9 min

Festa batean, Yvan ezagutuko du Gertrudek. Musu ematea gustatuko litzaiokie, baina izugarria iruditzen zaio bere izena. Gertrude ez da kikiltzen. Yvanek, berriz, hari joaten ez uztea erabakitzen du. Elkarri zirikatzen, proban jartzen hasten dira...

En una fiesta, Gertrude conoce a Yvan. A él le gustaría besarla, pero encuentra repulsivo su nombre. Gertrude no se deja intimidar, Yvan decide no dejarla ir. Se ponen a prueba, se provocan...

---

## Honeymoon at Cold Hollow

(2022). Nat Rovit  
AEB / EEUU. 14 min

1974ko neguan bikote ezkonberri bat elurak harrapatuta geratu da txabola urrun batean, naturaren erdi-erdian. Han jakingo dute ez dutela inoiz elkar ezagutu.

En el invierno de 1974 una pareja de recién casados queda atrapada por la nieve en una cabaña remota en plena naturaleza. Allí descubren que nunca se conocieron en realidad.

---

## In Half

(2023). Jorge Morais  
Espainia / España. 25 min

Gizon baten bidaia kontatzen du. Bere izuen mende erori ondoren, mundu arrotz bat zeharkatu beharko du, magia z betetako unibertso bat. Bertan agertuko zaizkio bere iraganeko beldurrak eta gatazkak, eta bertan aurkitu beharko ditu irtenbideak bere halabeharrentzat, benetan nor den jakiteko.

Narra el viaje de un hombre que, tras caer presa de sus temores, debe atravesar un mundo extraño, un universo lleno de magia donde se le aparecerán sus miedos y conflictos del pasado y donde deberá encontrar soluciones a su destino para descubrir su propia identidad.

---

## Juggernaut

(2023). Daniele Ricci,  
Emanuele Ricci. Italia. 20 min

Erdi Aroko fantasia giro goibel batez inguratua, gerlari ausart bat bidaia mingarri eta nekagarri batean murgilduko da, galdu duena berreskuratzeko.

En una atmósfera medieval de fantasía oscura, un valiente guerrero se embarca en un doloroso y agotador viaje para recuperar lo que ha perdido.

---

## The Perfect Place to Cry

(2022). Shane Bannon  
AEB / EEUU. 6 min

Gaueko ordu txikietan, basoaren sakonean, emakume bat negarrez ari da bere autoan. Argi bat dir-dir egiten ari da zuhaitzen artean. Autoaren argiak iristen diren lekuraino, gizon baten irudia sumatzen da. Hurbiltzen ari da.

